

Groibek kale

Elgetako aldiizkaria, otsaila 65zk.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

91 urte landareekin

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Ai, Eguarbitza, Eguarbitza

Aspaldi honetan Eguarbitza inguruan badabil txoriburen bat edo ez dakigu helburu konkretu baten atzetik dabilen edo hotza sentitzen duenez berotze nahian dabilen. Guk lerro hauetatik zera galdetu nahi diogu: Zer irabazten duzu naturari min egiten? Ez baldin badakizu ere basoak, larreak erretzera-koan zu zara kaltetuena edo era orokor-rragoan esanda gizakia da kaltetuena.

Elgetak ez du horrelakorik merezi ez eta beste inongo lekuk ere.

Mesedez, nahikoa da, ez dugu horrelako beste zoritxar baten lekukoak izan gura.

Maya ingurumen taldea

**ZURE ESKUTITZEN
ZAIN GAUDE!**

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inzialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobran Goibekokale ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

Gurekin internet bidez euki gura badozu hartu-emon, posta elektronikoa: goibeko@topagunea.com

**ESTAMPACIONES
INTXORTA S.A.**



AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-07142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi z.k.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928

Helburu barik, ez goiaz iñora, ez dago Gaztetxerik !



Lan asko egiñ eta gero ikusi giñuan, gure ekintzak aurrera eruateko lokal propio baten biharra genkela. Lokal eskaerak izan ziran. Erantzuna, zeguanean, ezezkoa. 16 urte nekazen eta ondo akordatzen naiz, ilusionatzeko moduko zeozer sortziar geuzen.

Lehenengo, ikastaruak aurrera eruateko genkazen giltzak entregatu ginuaz. Udaletxian. Hurrengo barikuan, gazte mordia juntatu giñan, eta bagenkixen zertarako: atia bota eta barrura. Okupaziñua. Bagenkan gure helburuak aurrera eruateko bidetako bat izango zan lekua. Lekua barik, beti helburuak aurrian jarritta.

Bost urte betetze-ra goiaz martxuan. Ask

ikasi dogu gaztetxian. Lagunak egiteko be balio izan dosku. Alkarrekin egin dittugunak, alkarrekin bizitakuak, izan dira gaztetxiak daukan helburu nagusixan seiñale: egin dittugun gauza danek lehenengo geure partehartzia eskatu dabe eta horrek lagundu dau bestiena bultzatzen.

Batzeko, ondo pasatzeko eta interesgarrixa pentsatzen jakuna egiteko etxe bat genkan. Oingo Bost urtiotan ilusiñua izan da gaztetxera gehixen lotzen zoztana. Herrikuekin, lagunekin, bertan batzen giñanokin, gauza barrixak aurrera eruatiak sortzen zaban ilusiñua.

Ilusiñua emetazten juaten ei da. Azkenian danakin eta ez danakin gertatzen dan moduan. Azkenengo hila-betetan ez dot topatzen

lehenau naukan (genkan) ilusiñua, zahartzen egongo naiz. Herrixan gaztie alkarrekin batzeko beste modu batzuk topau dittue. Dana moduan, batzuk diru publikuakin finantziatutakuak (musikuen lokalak) eta bestiak diru pribuakin (gurasuen garajiak). Honi, Gaztetxian gabizenon ideak lehen besteko argi ez eukitzia gehittuta. Aurrera juan bihar zan proiektua, atzera ez ete doian dudia sartzen dabil nere gorputzian. Ilusiñua gora eta behera ibiltzen ei da. Eta Gaztetxian badago ilusiñua daukan jendia, honei bidia lagatzen juateko ordua heldu dala pentsatzen nabil azpaldixan.

Atzetik datozenen ilusiñua galdu aurretik. gaztetxiak batzeko bakarririk balio aurretik. Ekin-tzak ondo pasatzeko bakarririk izan aurretik. Helbu-

ruak argi daukauen argittu bihar dogu. Gaztetxia, topalekua da, adin eta era desberdinetako jendiana. Euskertian normalizaziñuan alde egitten dau. Ekintzak sortzeko leku aktibo eta dinamikua da, partaidetzia eta imaginaziñua bultzauaz. Era desberdinetako ekintzak eruango dira aurrera, eguneroko arazuei konponbidia bilatzeko ahaleginian. Danon denbora libria bihar dan moduko irteeria emoteko da Gaztetxia.

Gaztetxiak dittuan helburuak beste talde askok dakenekin bat egitten dabe. Helburuakin bat egitten dabanak, badauzka Gaztetxia, Goibeko... herrittik sortu diran taldiak eta herrixan alde lana egitten jarraituko dabenak.

Oxel Erostarbe Tubilla

HAIZEA

TABERNA

giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256

Jesús Mari Montiel

ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artekale 3.
Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN

kutxa
gizarte-ekintza
obra social

Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria

Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du

Goibeko

k.e.
Tel. 943 78 90 85
Salbador 7, Kultur Fixea
goibeko@topagunea.com

Aldizkari honen
argitaratzailea

Gipuzkoako foru
aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria

GOJBEEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. Zuzendaria: Iban Arantzabal. Erredakzio kontseilua: Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. Erredaktoreak: Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. Maketazioa: Bittor Gallastegi. Administrazioa: Susana Jimenez eta Esti Retolatz. Publizistak: Izaro Arrazola Oihana Sarasua eta Esti Askasibar. (Tel: 943789085). Banaketa: M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. Inprimategia: GERTU koop. (Zubillaga Oñati). Copyright-a: Goibeko k.e. Lege-Gordailua: SS-475/95. ISSN: 1135-3538. E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pello Zabala: "Euskal Herrian mediterranean klima sartzen ari da"

Hilaren 15ean, Pello Zabalaren "Naturaren Mintzoa" hitzaldia izan zen Liburutegian. Maya-koek antolatutako hitzaldian hogeitahamar bat lagun batu ziren, eguraldia, klima eta abarrek eragiten duten jakin minak deituta

- Zertan oinarritzen zara eguraldia asmatzerako orduan?

Gauza desberdinetan oinarritu behar izaten da eguraldia asmatzeko. Alde batetik naturaren ezaugarriari begiratu beharra dago, -haizea nundik datorren, animalien kantuak, armiarmak etab. Bestetik teknologia beharrezkoa izaten da, adibidez azaleko mapa, edo mapa sinoptikoa.

- Betetzen al da eguealdi gizonok esaten duzuen guztia?

Gaur egun errazagoa da guretzako egindako predikzioa asmatzea. Lehenago, eguraldi iragarpenak egiten hasi nintzenean, orain dela 17 urte inguru, Madrildik bidaltzen zutenazaleko mapa ez zen oso fidagarria eta beti ere beldurrez ibiltzen ginen iragarpena egiterakoan. Gaur egun berriz, estudio meteorologikoak

Europa osoa elkartuta egiten dira eta ez dago hainbeste beldurrik Madrildik egin daitezkeen hankasartzei.

- Zer dira tenporak?

Orain dela 17 mendetarik hona datorren ohitura da (1650 urte). Lehengo artzai eta baserritarrengandik datorrela pentsatzen dut. Tenpora kontu hau bertan bakarrik ematen da. Beste lurraldeetan, badaude antzerako ohiturak, baiña tenporak hemen bakarrik ezagutzen dira.

Egun seinalatu batzuetan egiten duen giroaren arabera, hurrengo hiru hilabeteetan egingo duen giroa iragarri daiteke. Hemen arazoa egun horiek noiz diren zehazterakoan izan da. Lehenago, baserritarrek ez zuten egutegirik, nahasketak izan dira tenpora egunak zehazteko orduan.

- Tenporak noiz izaten dira?

Gabon aurreko astean, neguko tenporak izaten dira. Udaberrikoak garizumako lehen astean izaten dira, austerre pasatu eta zortzi egunetara. Pazkoa pasatuta, hirutasun aurreko astean Udako tenporak izaten dira eta



Pello Zabala liburutegian emandako hitzaldiaren ondoren. Tenporen nondik norakoak argitu zituen eguraldi gizonak

Udazkenekoak Irailaren 14a eta ondorengo egunak izaten dira.

- Zer iragarri dute azkenengo tenporek?

Azkenengoak hegoaizean gelditu ziren. Baiña nik egindako azterketetan konturatu naiz, bigarren egunean, ostiralean, batzutan alderantziz egiten duela, aurtengo moduan. Aurretik hilabete baiño gehiago hegoaizea egin eta gero beste hiru hilabete hegoaizea egitea ezinezkoa dela eta iparaizea ere sartu dela.

- Negutegi efektuaren seinale agian?

Uste dut baietz. Horrek zerikusia izango du horrekin batera beste arra-

zoi batzuk ere badaude. Nere ustez, Errusiako kanalak ere zerikusi handia izan du. Ipar poloan hotz gutxiago egiten du eta nere ustetan, kanal horregatik izan da gehienbat. Hara gora doazen 4 erreka haundienak ura beherantz desbideratu dute eta ur hori falta denez epelagoa da hango klima. Itsasoko ur gazia beti da epelagoa eta erreka ur hotza falta denez, bertako izotza urtzen ari da. Hango aire polarra txikiagoa da eta horrek antizikloiak gorago joatea eragiten du. Pixkanaka mediterraneaneko klima sartzen ari da.

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA


Olibia izan zen gaueko izarra

Dantzagarri bezala iragarritako taldeak ez zuen gaua alaitu

Urtero bezala, ihaute-rietako barikuan mozorro eguna izan genuen Elgetan. Arratsaldea haurrentzako izaten da, gustokoen dituzten pertsonaiak aukeratu eta kalera. Eskolan jokuak egin zituzten, eta ondoren, gurasoek gertatutako merienda goxoa jatera. Ertzaina, medikua, neska mutiko gaiztoak, mostruoak, neskati-lak, behiak, erleak...denetik aurkitu genuen plazan merienda eta gero bertan jarri zuten musika-ekin dantzan.

Gaua bestelakoa izan zen. Gauean nagusien ordua iritsi zen eta. Gaztetxea, tabernak eta tabernariak mozorrotuta. Eta kuadrilak beste horrenbeste. Erleak, lapurrak, mekaniko-

ak, bakerak eta indiak, medikuak... Gaueko 23:00etan Gaztetxean hastekoa zen kontzertua berandutu egin zen. Dantzagarria zen musikaren zain, jende ugari batu ginen bertan. Taldekoek emanaldia hastean aurpegia aldatu zitzaigun denoi. Dantzagarria baino gehiago... Eskerrak, laister bukatu zuten eta mozorro txapelketari ekin zenari. Aurkezleak, banan-banan aurkeztu zituzten mozorro guztiak, argi eta garbi zegoen nork irabazi behar zuen. Olibia, bere mozorroarekin dudarik gabe gaueko izarra. Gauak luze iraun zuen, izarrak desagertzen hastean hasi zen eta jendea etxerantz joaten.



IÑAKI JATETXEA

Leku paregabea, eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23 ELGETA
Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. 20690 ELGETA
Tel. eta faxa: 943 78 90 21



laz egindako bertso jaialdian, Ainhoa Agirrezaldegi bertsoan

Bertso jaialdia antolatzeko bilera

Martxoaren 2an, iluntzeko 8etan bertso saioa antolatzeko bilera egingo da Udaletxean. Bertso jaialdia apirilaren 6an izango da, Espaloian, gaueko 10:30etan. Parte hartuko duten bartsolariak Xabier Zeberio, Joxe Agirre, Amaia Agirre, Amets Arzallus eta Xabier Silveira izango dira. Bertso saioaren aurretik afaria egingo da. Gai jartzailea Leire Basauri izango da eta aurrez egingo diren bilerak gaiak prestatzeko eta saioa antolatzeko izango dira.

Euskara ikastaroetarako dirulaguntzak.

Udaletxeak, 2000/2001 ikasturtean euskaltegiren batean euskara ikasten ari direnentzat diru laguntzak agindu ditu. Eskaera egiteko Udaltxera zuzendu beharra dago eta epea martxoaren 9an amaitzen da.

Diru laguntza eskuratzeko beharrezkoak diren ziurtagiri eta gainontzeko agiriak ikasturte amaieran aurkeztu beharko dira.

Antolatzaileen apustua Nagusien tanborrada izango da aurten ere

Jai Batzordea hasi da 2.001eko Azoka Nagusiko Jaiak antolatzen. Dagoeneko bi bilera egin dituzte. Herriko taldeei deia egin nahi diete jaien antolaketa parte hartzeko.

Aurten ere tanborrada antolatzearen aldeko apustua egin dute batzordetik. Jende minimo bat apuntatzen ez bada ostera, iaz horrenbeste arrakasta edukitako ekintza bertan behera geratuko da.

Jaietan plazara etorriko diren taldeak dagoeneko lotuta daude. Plazataldeei dagokionez, Drindots eta Egan dira. Aspaldiko partez Mariatxiak (mexikarrak) izango dira eta jaiari amaiera emateko Imuntzo eta Belokik alaituko Domeka bixamon eguna.



Trajeak gertatzen hasi beharko gara

Jarri zure iragarkia

Tel:78.90.85

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel:768078

Dusmingets ezagunak Gaztetxearen urteurrena ospatzeko

Hitzaldiak, bideoak, kontzertuak...ekintza ugari martxoko astebukaeratan

Martxoak 24an bost urte beteko ditu Gaztetxeak. Urteurrena dela eta, era guztietako ekintzak antolatu dituzte: hitzaldiak, bideoak, tankera desberdinetako kontzertuak... Bost urtetan izandako gorabeherekin urtekari bat argitaratzeko asmoa ere badaukate.

Lan asko egin eta gero lortu zuten herriko gazteek Gaztetxea. Batu eta ekintzak aurrera eramateko lokala lortzean, bertan ekintzak egiteari ekin zioten. Lan asko egin da eta autofinantziazioaren bidetik, ekintzak aurrera eramateko lokala guztiz egokitu dute. Momentu honetan Gaztetxean generazio aldaketa ematen ari da. Gazte hauek, gogotsu ekin diote Gaztetxea aurrera eramateko erronkari. Martxorako ekintza ugari antolatu dituzte, duela bost urte sortutako proiektua eta herritarren partaidetza

bultzatzeko gogoarekin.

Martxoak 2, herriko musika taldearen ordua

Martxoak 2an, barikua rock kontzertua izango da gaueko 23:00etan. SEÑOR NO talde donostiarraz gain, Bergararik FLY SHIT taldea etorriko da. Talde hauen telonero bezala OSTIADA OI-koak izango ditugu. Elgetar gazte hauen lehenengo kontzertua izango da.

Martxoak 4an Mendi irteera izango da. Elgeta-Kanpazar-Besaide-Udala izango da ibilbidea. Irteera goizeko 9:00etan izango da plazan.

Martxoak 8, 9 eta 10ean berdintasunaren aldeko asteburua

Martxoak 8an emakumeen eguna dela eta dokumentala emango dute Gaztetxean. Gaia "Emakume Arabiarra" izango da, ordua arratsaladeko 19:30etan.



Martxoak 9an, Txuma Murugarren, kantautorearen doinuak entzuteko aukera izango dugu gaueko 22:30etatik aurrera.

Martxoak 10ean "Emakumeak langile" hitzaldia izango da. Ondoren merienda izango da, berdintasunaren aldeko astebukaerari amaiera emateko.

Martxoak 16an, ARDI BELTZAKO bideo polemikoa ikusteko aukera izango da gaueko 22:30etan. Ondoren Adierazpen Askatasuri buruzko hitzaldia antolatu dute.

Martxoak 17an UMEEN EGUNA. Urtero bezala hurrek ere izango dituzte beraientzako ekintzak. Goizean, mendi bueltaxoa egindgo dute eta bazkaldu ondoren jokoak, Korrika Txikia eta karaokea izango dituzte.

Martxoak 23an, mahai ingurua izango da. Gaztetxe desberdinetatik etorritakoek "Gaztetxea.

Zer da?" gaia hartuta beraien iritzia azalduko dute.

Martxoak 24an, bosgarren urteurreneko jaiak

Eguerdiko 12:30etan poteo herrikoia izango da trikitilariekin lagunduta. Eguerdiko 14:00etan Bazkari Herrikoia. Txartelak saltzen daude Haizea eta Patxi tabernatan. Bazkaldu ondoren jokoak izango dira. Ondoren Gaztetxeo urteakaria aurkeztuko da.

Gauean izugarrikoko kontzertua izango da. Gasteizetik CCP regae taldea etorriko da. Eta hauen ondoren DUSMINGETS talde kataluniarrak, regae, patxanga, salsa eta erritmo mestizoekin osatutako kontzertua eskainiko du.

Gaztetxeoek ekintza ugari antolatu dituzte beraz martxorako. Zorionak Goibekokaleko lantalde osoaren partetik.



Gustauko lejatzuke Goiena telebista ikusi ahal izatia Elgetan?



(40 urte) Bihargiña
Asier Morales

Uste dot oso politta izango litzakela holako telebista kanal bat eukitzia Elgetan, hori bai jentia lan egitteko gogua baldin badauka. Bestetik ez dakat inongo informaziñoik zergaittik ez douen ikusten.

Oso politta izango zan holako gauzak be Elgetan izatia baiña arazon batzuk egon bihako dia guk oindio ez ikusteko, repetidore faltia, arazo geografikuak edo beste holako gauzan bat.

(54 urte) Bihargiña
Jose Luis Aperribai



(38 urte) Bihargiña
Patxi Xabier Kanelo

Oso interesgarria izan bihar da baiña ez dot ezer ezagutzen gai horren barruan. Sekula ez dot ezer entzun eta horregaittik ez dakit.



(36 urte) Eltxekoandina
Ana Txabel Garmendia

Oso politta izan bihar da bertako notizia eta programak ikustia. Gaiñera beste lekutan ikusitta guk be ikusi egiñ biharko geunke. Uste dot antenen arazon bat egongo dala guk ez ikusteko.

Gure berrixak telebistan ikusi ahal izatia oso ondo egongo zan eta gaiñera nobedadia be izango zan.

Oñatiarrak Bergararrak eta Elgetarrok gaz ezin douenak ikusi eta hirurek udaletxiakin dake arazuak horrekin uste dot nahiko argi geratzen dala zergaittik ez douen ikusten.

(25 urte) Jkaskia eta Bihargiña
Olaita Jimenez



Interesgarria izango ez danik ezin geinke esan ze politta izan leike baiña ez ikusteko uste dot antena edo arazo teknikoren bat egongo dala.

(35 urte) Bihargiña
Mari Karmen Egiguren



Kartetan jokatzeko giro egokia

W.C.

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

Aintzane denda
zugandik gertu
behar duzun
beste



Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

ETXEAK

zure esku

...eta kitto!
drogeteniturri
goibekokale

INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibarko *...eta kitto!*, Elgetako *Goibekokale* eta Ermuko *Drogeteniturri* aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun INMOBILIARIEN GEHIGARRIA. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia, Soraluze eta kostaldean banatuko dugu ale berezi hau.

10.000 ale kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

5. zenbakia. 2001eko otsaila

Publizista: Belen Ulazia. Diseinua eta maketazioa: Koldo Mitxelena Zumaran.

Tirada: 10.000 ale. Tel. 943 20 67 76. Faxa. 943 20 67 76

AUKERA

INMOBILIARIA

API 208



Etxebizitza eta lokalen
salerosketa eta alokairua

Tasazioak

Aholkularitza

Gipuzkoa osoko eta era
guztietako eraikinen
datu basea zure esku

Toribio Etxebarria 10, behea
aukera@infonegocio.com

Tel. 943 12 13 95

Faxa. 943 20 06 41

20600 EIBAR

IBAI-ONDO Inmobiliaria.
EIBAR**Bidebarrieta 60**
Tel. 943 20 12 13

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Baserria	Gutziz berriztua. 12.000 m ² ko terrenoa.	57.000.000
EIBAR	Baserria	Erdi jantzia.	Galdetu
EIBAR	Iparragirre	3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, despentsa. Eguzkitsua.	18.750.000
EIBAR	Isasi	3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bizitzen hasteko moduan.	24.000.000
EIBAR	Calbeton	3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita.	24.000.000
EIBAR	Plaza Barria	4 logela, egongela, sukaldea. 2 bainugela. 110 m ² .	35.000.000
EIBAR	Urkizuko dorreak (2)	3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Bata garajearekin.	38/40 milioi
EIBAR	Ipuruako dorreak	3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Garajearekin.	42.000.000
EIBAR	Jardiñeta	2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berriztua.	22.500.000
EIBAR	Ubitxa (etxe bi)	2 logela, egongela, komuna, bainugela. Berriak.	27.800.000
EIBAR	J.A. Iturrioz	2 logela, egongela, komuna, bainugela, despentsa.	19.500.000
EIBAR	Bidebarrieta	Berriak. 100 m ² erabilgarri.	50.000.000
EIBAR	Estaziño (etxe bi)	100 m ² . Berriztatzeko.	15.000.000/13.000.000
EIBAR	Bista Eder	3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, despentsa. Berriztatzeko.	19.500.000
EIBAR	Ibargain	108 m ² . Berriak.	30.000.000
EIBAR	Barakaldo (etxe bi)	Bizitzen hasteko moduan.	19.500.000/21.000.000
EIBAR	Urkizu	Berriztatzeko.	Galdetu
EIBAR	Muzategi	Berria. 2 logela, 2 bainugela, sukalde-jangela.	28.000.000
EIBAR	Txonta	2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berriztatzeko.	9.000.000
EIBAR	T. Etxebarria (etxe bi)	Berriztatzeko. 82 m ² . / Bizitzen hasteko moduan. 110 m ² .	25/56 milioi

GARMENDIA Inmobiliaria.
EIBAR**San Juan 7, behea**
Tel. 943 20 34 13

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Kalbeton	Dana berriztatzeko. 80 m ² .	Galdetu
EIBAR	Isasi	Dana berriztatzeko. 70 m ² .	Galdetu
EIBAR	Migel Aginaga	100 m ² ko lokala.	Galdetu
EIBAR	Bista Eder	2 logela, egongela, sukaldea, komuna, ganbara. Dana berriztuta.	Galdetu
EIBAR	Bidebarrieta	3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Dana berriztuta.	Galdetu

TORREVIEJA ETA NOJAN pisuak salgai.

LARRAGEST Inmobiliaria.

EIBAR

F. Calbeton 22-24
Tel. 943 20 00 12

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Ubitxa	Igogailuarekin. 3 log., suk., bainugela, egongela eta trasteroa. Kalefakzioarekin.	Galdetu
EIBAR	Ubitxa	3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Berriztatzeko.	6.500.000
EIBAR	Untzaga	Gutziz berriztua. Kalefakzioarekin eta igogailuarekin.	Galdetu
EIBAR	Barakaldo	3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Igogailuarekin.	Galdetu
EIBAR	Barakaldo	3 logela, sukaldea, bainugela, jangela eta trasteroa. Berriztua.	Galdetu
EIBAR	Erdialdean	2 logela, sukaldea eta komuna berriztuta, egongela, altzariekin.	9.500.000
EIBAR	Eibarko Txikito	3 logela, sukalde haundia, bainugela. Igogailuarekin.	Galdetu
EIBAR	Txaltxa Zelai	3 logela, sukaldea, komuna. Dana kanpora.	Galdetu
EIBAR	Amaña	Sukalde-jangela, 3 logela, bainugela. Prezio interesgarria.	Galdetu
EIBAR	Iparragirre	Altzariekin. 3 logela, sukaldea, bainugela, despentsa. Kamarotea. Dana kanpora.	Galdetu
ERMUA	Gipuzkoa etorb.	Igogailuarekin. Berriztatzeko.	11.500.000
ERMUA	Gipuzkoa etorb.	2 logela, sukaldea, egongela, bainugela.	Galdetu


LOKAL KOMERTZIALEN, INDUSTRIALEN ETA BULEGOEN ALOKAIRUA

CASA Inmobiliaria.

EIBAR

San Juan 11
Tel. 943 20 12 44

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Errebal	3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela. Ezinhobeto, 105 m ² .	Galdetu
EIBAR	Eibarko txikito	2 logela, sukaldea, bainugela, egongela. 75 m ² .	Galdetu
EIBAR	Urki	2 logela, sukaldea, bainugela, egongela. 65 m ² .	Galdetu
EIBAR	J.A. Iturrioz	2 logela, sukaldea, bainugela, egongela. 60m ² .	Galdetu
EIBAR	Jazinto Olabe	3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela. 120 m ² .	Galdetu
EIBAR	Plaza Barria	4 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela. 110 m ² .	Galdetu



CARLOS VEGA
INMOBILIARIA

- * Gestio Inmobiliaria
- * Salerosketa
- * Alokairuak
- * Aseguru orokorrak

San Juan 7, behea
Tel. 943 70 16 57
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



Urkizu pasealekua 11
20600 EIBAR
Tel. 943 12 71 80
943 12 04 37
Faxa. 943 12 71 80

JUARISTI Inmobiliaria.**EIBAR****R. JUARISTI API****Arragueta 2-bis B****Tel. 943 20 08 60**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Urkizuko dorreak	3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna.	Galdetu
EIBAR	Plaza Barria	4 logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna, despentsa.	Galdetu
EIBAR	Bista Eder	3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, despentsa.	Galdetu
EIBAR	Jardiñeta	140 m ² ko Duplex-a. Berriztua.	Galdetu
EIBAR	Paziano Arosa	2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta ganbara.	Galdetu
EIBAR	Urkizu	3 logela, egongela, sukaldea, bainugela.	Galdetu
EIBAR	Barakaldo	4 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berriztua.	Galdetu
EIBAR	Bittor Sarasketa	4 logela, egongela, sukaldea, bainugela, despentsa, ganbara.	Galdetu
EIBAR	Urki	2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Berriztua.	Galdetu
EIBAR	Tiburzio Anitua	3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza.	Galdetu
EIBAR	Txonta	2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, despentsa. Terraza.	Galdetu
EIBAR	Estaziño	4 logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna. Kalefakzioa.	Galdetu
EIBAR	San Andres	4 logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna.	Galdetu
EIBAR	Barrena	2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, despentsa.	Galdetu
EIBAR	Arragueta (etxe bi)	2/4 logela, egongela, sukaldea, bainugela.	Galdetu
EIBAR	Baserriak	Aginaga auzoan, Elgetan, Itziarren eta Trabakuan.	Galdetu
EIBAR	Otaola etorb.	600 m ² ko lokal industrialia.	Galdetu
EIBAR	Zuloagatarren	400 m ² ko lokala.	Galdetu

EIBARKO ERDIALDEAN LOKALAK ALOKAIRUAN

JUAN GISASOLA, ERREBAL ETA URKIZUN LOKALAK TRASPASOAN

SIGLO XXI Inmobiliaria.**ELGOIBAR****San Bartolome 16 behea****Tel. 943 74 23 06**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Amaña	65 m ² . Ona. Sukalde-jangela, 3 logela, bainugela. Igogailua. Dana kanpora	14.500.000
EIBAR	San Cristobal	Atikoa. Bizitzera sartzeko moduan. Egongela, logela, sukaldea, bainugela.	8.500.000
EIBAR	Erdialdean	90 m ² . Sartzeko moduan. Hall-a, egong., 3 log., suk., bainug., despentsa. Kalefak.	25.900.000
EIBAR	Erdialdean	105 m ² . Ona. Hall-a, egong., 4 log., 2 bainug., suk., despentsa. Terraza. Igogailua.	Galdetu
EIBAR	Urkizu	96 m ² . Sartzeko moduan. Egong., 3 log., suk., bainug., despentsa. Gas kalefak.	19.500.000
EIBAR	Erdialdean	75 m ² . Ona. Hall-a, 3 log., suk., bainug.. Ganbara handia. Igogailua.	22.000.000

LOKAL ETA GARAJEAK EIBARKO HAINBAT LEKUTAN

Txema Barrutia

(57 urte) Bihargiña

Zenbat urte diru artian? 33 urte nabil Kutxan lanian.

Elgetara etorri aurretik nun egon ziñan?

Lehen Bergarako Kutxako zuzendarixa izan nintzan eta gero Eibarren eta Soraluzen be ibili izan naiz.


Zelan hartu zaittue Elgetarrek? Oso ondo hartu nabe, lehendik be elgetar batzuk ezagutzen nittuan eta beti ondo arreglau izan naiz Elgetarrekin.

Bizitzari aurre egitteko derrigorrezko gauza bat? Uste dot oso garrantzitsua dala bestiei laguntzia hemen munduan.

Munduko zein lekutan biziko ziñake? Elgetan gustauko jatan ze Eibarrekin konparauta izugarrizko lasaittasuna dago hemen. Baiña bestaldetik asko gustauko jatan Mediterraneo aldiari pasatzia udabarrixa eta udia.

Zerbait egitteko ohituraik badakazu? Asko gustatzen jata mendira juatia eta mendira juaten naixenian beti eruaten dot Oteiza edo Nerudan liburun bat baiña ohitura haundi moduan esan neinke, azkar esnatzen naixenez goixian liburua eta egunkarixa irakurtzia gustatzen jatala.

Zenbat urtekin maittemindu ziñan? 16 urtekin.



Zergaittik Elgetara lanera? Lehen maille-guak emoteko bulego baten nenbillen lanian baiña nagusixai aldatzeko esan notzan ze neri jentiakin lan egittia gustazen jata, orduan Elgetara juateko esan zoztan eta hemen nago.

Sagardotegi batera zeñekin juango ziñake? Juanito San Martiñekin.

Ametsik egitten dozu? Oiñ ez asko baiña lehen bai, gaiñera nere lehengo ametsek ez dake antz asko nere oingo bizimoduakin.


Aukeran, zeñi emongo zontzake dirua? 3.munduari, ze ez dago eskubiderik guk hainbeste eta berek haiñ gutxi eukitzeko.

Euruarekin zer moduz moldatuko zara? Oso ondo, uste dot arazo gehixen tabernetan moduan bi kaja eukitzia izango dala arazua, bat pesetekin eta bestia Euruekin.

Zenbat aldiz dutxatzen zara astian? Goizero espabilatzeko eta gaiñera ur hotzakin.

Gomendatu guri diska edo pelikula bat. Lehen Kubako oso talde ezagun bat entzuten neban gero Laboa be bai eta oiñ musika klasikua gustatzen jata. Pelikula bat "El imperio del Sol".

Zeñi egingo zontzake holako elkarrizketa bat? Juanito San Martiñi, asko ikasi dot berakin.



Juan Villar: "Eskualde honetako lurra oso aberatsa da"

Juan Villar Elizburu gazte-gaztetatik oso lotua egon da egurraren munduari. 15 urte zituela hasi zen tallista, eta ordutik, egurrarekin lotuak dauden hainbat lanbidetan jardun du. 1940. hamarkadan zerrategia jarri zuen, baina argi indar eskasiak eta garraio arazoak saiakera hura "bertan behera" uztera behartu zuten. Ordutik pinu landareen inguruan jardun du lanean. Bere esanetan, ezjakin ugari dago "Foru Aldundikoak oso teorikoak dira. Sarri askotan ezjakin ugarirekin egin dut topo". Oraindik-orain 91 urte bete ditu Villarrek. Bere bizitza, eta pinuen inguruko gauza asko kontatu dizkigu.

-15 urtekin hasi zinen tallista lanetan. Nola izan zen...

Elgetako Maristek "luxuzko" lanbideren bat ikasteko aukera emateko gomendatu zien gure gurasoei. Izan ere, semeak nik, etorkizun handia ei neukala uste zuten eta. Bergarara, Asentzio Galarrakin bidali ninduten ofizioa ikastera.

-Litografista lanetan ere ibilitakoa zara...

"Hueco grabado" deitzen direnak egiteko berezko etorria nuen. Ahalmen handia nuenez, nire gaitasunak ikusita, alemaniarrek eurentzako lan egingo ote nuen eskatu zidaten. Garai hartan, gauza

batzuk edo beste direla, esfortsu handiak egin behar izan nituen eta oso ahul nengoen. Aleman batek, begietara begiratu, nire ahultasunaren arrazoen berri eman zidan. Beste gauza batzuk egiteko gai nintzela esan ostean, eurendako litografista lanetan aritzeko eskaera luzatu zidaten. "23 urte nituen, eta beste zazpi urte litografista ofizioa ikasten aritzeko gogo handirik ez nuenez, ezezkoa eman nien.

-1930eko krisia jasan behar izan zenuen. Krisia gaingitu, eta soladaduzka egin ostean, zerrategia ipini zenuen...

Krisi denboran atek egi-



Villarren ordu erdiko elkarrizketa ikusi da Goitb-n, hala ere, Elgetan ezin ikusi Udaletxeak ez du-eta hitzarmena sinatu urtebete pasa den arren.

ten jardun nuen Asturia-seko meatzaldean. 1942. urtean, pinu asko saltzen zen eta zerreria ipintzea erabaki nuen. Diru asko irabazteko aukera eman-

go zidan kontratua sinatu nuen Beasaingo enpresa batekin. Kontratuaren arabera, hilean 100 metro kubo bidali behar nituen. Metro kuboak 300 pezeta-ko kostua zuen. Gauzak horrela, 500 pezeta irabazten nituen garbi metro kuboko. Arazo asko nituen, ordea. Garraioarekin eta argi indarrarekin arazoak nituen. Ezinezkoa zen hilean ehun

"Pinua landatzerakoan gauza asko izan behar dira kontuan: klima, lurraren ezaugarriak, pinuaren kokapena... horiek guztiak aintzat hartu ostean pinu klase egokiena landatu behar da"

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA
AST

San Roke 6
tel: 768168.

metro kubo bidaltzea. Bertan-behera utzi behar izan nuen zerrategia.

-Zerrategia utzi zenuetik hazitegien inguruan lan egiten jardun duzu...

Bai. zerrategia utzitakoan hasi nintzen biberoen inguruan lanean. Liburuak erosi nituen, eta pixkanaka-pixkanaka, ofizioa ikasten hasi nintzen. Klimak, lurraren norabideak, pinuak euki behar duen norabidea ren arabera haziak izaten duen bilakaera ikasten jardun nuen.

-Horrenbeste urteko lanaren ostean, zein pinu klase uste duzu dela aproposena Euskal Herriko lursailetan landatzeko?

Klima, lurraren ezaugarriak eta beste hainbat faktore izan behar dira kontuan. Euskal Herrian lur mota ezberdin asko aurki ditzazkegu... pinua-

rendako oso kaltegarriak direnak ere bai. Kanpotik ekarritako hamalau ongo mota ditut etxean hemen horren ohikoa den insignisa baino garapen gehiago dutenak.

-Nondik ekartzen dituzu landareok?

Estatu Batuetatik, Alaskatik, Himalaiatik... Nepal aldetik ekarritako landareak adibidez, maila altuagoko materialekoak izateaz gain, insignisa baino altuera handiago hartzen dute. Gaur egun aldiz, ezjakin asko dago. Hainbat baserriarrek lur oso aberatsak dituzte, baina ez dituzte ondo aprobetxatzen. Pena handia hartzen dut. Lur bakoitzak eskatzen duena sartzen ikasi beharko lukete.

- Liburuetatik asko ikasi duzu...

Liburuek laguntza handia



Afizioa ofizio izatea gustatuko litzaioke Juan Villari eta hori ezinbestekotzat jotzen du aurrera egiteko. Oraindik ere edozeini erakusteko prest agertu da Villar 91 urte izan arren.

eskaini didate. Perun — han baitako Basoko Intelektualen Elkarte— argitaratutako liburuak irakurtzen nituen. Askok ikasi nuen.

- Liburuek bai, baina batez ere praktikak era-

kutsi dizula ofizioa aipatu duzu behin baino gehiagotan.

Lehenengo eta behin argi utzi behar dut afizioa, ofizioa gustuko izatea ezinbestekoa dela. Nik gozatu egiten dut. Gipuzkoako inguru hau oso aberatsa eta etorkizun handikoa da, eta baserriarrek bizi irauteko ezinbestekoa da lurra ahalik eta ondoen aprobetxatzea. Gerra sasoiaren, Castellonen (Valentzia) egon nintzen denboralditxo baten ofizioa ikasten. Orduetik haiek egiten zuten berdina egiten saiatu naiz. Gure aldean, 60-70 urte aurrerapena zuten. Teknikoki oso aurreratutakoak zeuden, baina ez zuten hemen bezalako lur aberatsik. Pena litzateke gure lurra hobeto ez aprobetxatzea.

“Himalaiatik, EEBBtatik, Alaskatik... ekarritako hamalau ongo mota ditut etxean hemen horren ohikoa den insignisa baino garapen gehiago dutenak”



Liburuetatik asko ikasi du Villarrekin. Egunerokoak erakusten omen du gehien, hala ere izugarri handia den liburutegia osatuz gai beretsuen gainean.

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Oihana Kortazar laugarren estatuko txapelketan

Bere anaia Aitor hirugarren Bizkaiako ziklokros txapelketan

Aitor eta Oihana Kortazar 14 eta 16 urteko anai-arrebak ditugu. Biak txirindularitzan dihardute. Aitor duela urte batzuk hasi zen bizikletan ibiltzen, bere arreba berriz iazko urte amaieran hasi zen ziklokrosean konpetitzen. Biak orain errepideko denboraldira begira daude.

-Zelan hasi zineten bizikletan?

Aitor: Ni hamaika urterekin hasi nintzen, eskolan hasi nintzen bizikletan. Eta hor jarraitzen dut. Orain Elorrixoko Gaurisa Renault taldean nago.

Oihana: Aitorren ziklokroseko lasterketak ikus-

tera juaten nintzen. Orduan zirikatzen hasi ziren parte hartu nezan, eta azkenean hasi egin nintzen. Aurretik bizikletan ibiltzen nintzen baina nere kontura. Eibarko CDRrekin hasi nintzen abenduan ziklokrosean. Orain berriz, Durangoko Iturriaga taldearekin egingo dut errepideko denboraldia CDR-en neska bakarra nintzen eta.

-Nondik datorkizue afizioa?

O: eta A: Etxetik batez ere aitaren aldetik.

O: Gure aita gaztetan bizikletan ibiltzen zen eta hortik datorkigu. Marino Lejarretarekin lastertu

zuen berak. Baina gero utzi egin zuen asko zaindu behar zela eta. Ja, ja, ja.

-Noiz hasten zarete denboraldia? Zein mailatan zaudete?

O: Ni martxoan hasten naiz, aurki. Juniorra naiz.

A: Nik uste apirilean edo hasiko garela, kadeteko lehendabiziko mailan korrituko dut.

-Zein emaitza lortu dituzue?

A: Bizkaiako ziklokros txapelketan hirugarren izan nintzen Zeberion. Nahiz eta gipuzkoarra izan bizkaiako lizentzia daukat. Gipuzkoako txapelketan zorte txarra izan nuen erori egin nintzen eta. Euskadiko txapelketan 7. izan nintzen nere mailan, ni baino urtebete zaharragoa zen jendearekin negozi mailan. Baina beno, orokorrean gustora. Gero eskolako txirindularitzan ez nintzen oso ondo ibili, zirkuitu itxiak ziren, eta...

O: Zazpi lasterketa egin ditut. Lehendabiziko lasterketa behintzat amaitu egin nuen. Gipuzkoako txapelketan doblatu egin ninduten, eta doblatzen bazaituzte kanporatua zaude. Gero Nojan jokatu zen espainiako txapelketan, eta juniorren mailan 4. geratu nintzen. Justu



Aitorri afizioa aitarengandik dator.



Aitor eta Oihana orain errepideko denboraldira begira daude.

oztopo baten aurrean hartu ninduten, baina nola zaila den jakitea zenbagarren zoazen...azkenean laugarren. Euskadiko txapelketan erori egin nintzen.

-Zenbateko lasterketak izango dituzue aurten?

A: Guk uste dut 60-50 km. ingurukoak izango ditugula.

O: Guk piskat gutxiago 50-40km edo.

-Zer nahiago nahi duzue parranda ala bizikleta?

A: Neregatik biak, ja, ja,...konpajinatzen

O: Nik nahiago dut bizikleta. Nik badaukat borondatea gauean ateratzen banaiz etxera garaiz bueltatzeko hurrengo egunean entrenatu behar badut. Anaiak baino borondate gehiago daukadala uste dut.

Eskola-kiroleko mutilak saskibaloiko finalerako ere sailkatu dira

Futbol 7ko neskak azken partidua galdu zuten

Duela hilabete batzuk eskubaloiarekin egin bezala, elgetako umeez saskibaloiko finala jokatzeke aukera izango dute. Bergara aldean jokatzeke eragatik "deabru gorriak" bezala ezagunagoak diren IÑAKI jatetxeke mutilak, 38-20ko emaitzarekin nagusitu ziren azken partiduan. Hurren-

go asteetan futbolarekin hasiko dira. Hemen ere faborito nagusiak dira elgetarrak. Futboleko finalera iristen badira, duela urte batzuk beste haur batzuek eginikoa berdinduko dute, hau da, hiru finaletara iritsi. Baina hurrek ezingo dituzte final guztiak jokatu, kirol bat aukeratu beharko

dute-eta. Jarraian irabazten badute Gipuzkoako beste herrikoekin neurtuko dituzte beren indarrak.

Neskek, berriz, partida bat galdu eta agian kalean

Partidu bat galdu arren kanpoan geratu daitezke Elgetako neskek. Beraie-

kin buruan berdinduta zeuden Eskoriatzako nesken aurka galdu zuten 3-1. Printzipioz lehendabiziko taldea joango litzateke Gipuzkoako txapelketa, baina azken orduan 2. talde bat joan daitekeela adierazi diete. Oraindik konfirmatu gabe dagoen arren, itxaropenaren atea irekita geratzen da.


Oskarbik Udaberri Txapelketa jokatzen dihardu

Euskal ligarako sailkatzerik izan ez dutenez, Gipuzkoako beste hainbat bikotekin Udaberriko txapelketa bat jokatzen ari dira Oskarbikoak. Sailkapenean 2. amaitu dute eta bi sailkatzen direnez aurrera segitzen dute. Oraindik ez dakite Gipuzkoako zein beste talderekin jokatuko

duzen. Azken partidua Aretxabaletan jokatu zuten Arantzeta eta Peñalverrek. 19-11 galtzen joan ostean, 20-22 irabazi zieten Lasagabaster eta Lazkanori.

Lau eta erdiko txapelketa
Izenemateak beste astebeteko luza-

pen bat izan du. Otsailaren 23an izenemateak amaitu arren, piskat gehiago luzatuko da. Txapelketa martxoaren erdialdean hasiko zaitu. Iazko irabazle den Castellanosek izena eman du txapelketan.



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO
erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

TABERNA DE ROKUA
JATE TXEAL

tel: 768273

7
L
E
A
P
A
9
N
D
E
S
9
7
A

**M^a
ESTHER**

Tel: 76 81 67

Ihauteriak nekazal munduan

Nekazal munduko espresioak

Azken urteotan, euskal ikerlariak lanik asko egin dute gure aurrekoen ohiturak biltzen eta bere esanahia egokitzen. Ihauteriko ohitura asko denboraren arabera aurkez daitezke. Baina beste zenbait inolaz ezin dira hain garai konkretuetara finkatu, horregatik hemen aipatzen diren hauek aspaldidanik datozkigulako, bai artzantza eta baita geroago lehen-nekazaritza ere, gaiaritik gogora ditzakegunak ere. Eredu hau, zaharrenetarik hasita aukeratzen dugu hemen aurkeztean.

Goi-indariak gure onerako jarrai

Mugatuak jatorriz, osasunez, janariz, giroz, gazgileen erasoz ziren gure arbasoak. Horregatik, "Goi-Indarretan" ustea zutelako, berauen babes behar izaten zuten. (eguzkia, ilargia, eguratsa, ortzadarrak, tximista, trumoa, lainoa, kazkabarra, iluntasuna, sua...). Beraz, gaur egun "Santa Ageda" eskean, "San Blas Gotzaiaren" eskean eta antzekoetan biltzen direnak auzoarteko hondakinak elkarbanatzeak asmo hori daramate.

Arbasoen mitoetako per-

tsoniaiak gogoratu

Ildatzizko kulturaren aurreko ohituretan, giza-kiak zituzten hainbat galderari zentzia eta erantzun baikorra emateko, goi-zentzuen partaidetzat jotzen zituzten "Pertsonai Mitologikoak" sortu zituzten.

Bizkaian, Mundakan ospatzen dira "Aratus-teak. Badirudi horren adierazgarri dela Ituren eta Zubietan ospatzen duten Zantzar "ttunturroen joaldia". Antzeko esanahia daramate Laneko Karnabaletan irudikatzen diren pertsonaiak: Miel Otxin, Ziripot, Zaldiko...

Inahuts-era errituak

Gure arbasoek beste era bateko denboraldia bizi izan zuten; gehienbat urtealdia bi zatitan banatua: "Neguko Ekialdia" eta "Udarako Ekialdia" deitzen dizkiegunak.

Urteko egutegia lurrarekiko egintzekin lotuak ezagutzen zituzten. Honela: Lotazila (aben-

duan, hazia lo lur azpian), Ilbelta(eguna motza eta gau luzea; iluna hotza eta gogorra); Otsaila (otsoa gaizkilea herribetara jeixten zenekoa); Epaña (zuhaitzen poaketa aldian)...Eta Ihauteriei zenbait lekuetan "Inhauts-aldia" deitzen diote, inhautu edo podatu lana egin behar iztaen zutelako, igalien hobekuntzarako.

Negu garaiko errituak

Bai negualdiko eta bai udaberri sarrerako ekaitzak uxatzeko, opariak eskaintzez gainera, sakratasun bereziz ornitutako pertsonaiek zenbait erritu egiten zituzten.

Ohitura hauek, leku batzuetan kristautuak izan dira: San Gregorio Ostiense, ezkongaien laguntzaile eta soroen zaindaria ezagutzen da; San Fausto, udaberriko euri ekarle; San Kristobal, nekazaritzako laino urtsuak ekartzeko...

Lan neketsuen etetzea

Garai "gogorra" deritzen denboraldi honi, Otsailaren erditik Maiatzaren haseraino. Gogora ditza-gun zenbait lan nekagarri; ikazkintza, artzantza, abelzaintza, baso garbiketa, mehategiak, argintza, etab.

Aurretik, beraz, hiru egunez "menpekotasuna" eta "lan neketsuekiko etena" ospatu izan dira Ihauterietan, pertsona eta ondasunak festa giroan erabat murgilduaz. Zer esanik ez, urte guztian beren buruak "morroi" zirenak.

Txorimaloak eta mozorroak

Gure baserrietako lurretan garai batean artoa, garia eta babarruna ugari eraiten zen. Ama-lurrean etxe-ko jaunak lurra prestatu ondoren, etxe-ko andreak hazirik onenak eraiten zituenean, lurak hartzen zuen hura loratu, hazi eta fruitu egin ahal izateko Hegazti harrapalarien uxatzaile bezela asmatu zituzten "txorimalau" edo "txorizugarri" deritzon irudiak soro-erdiatan tantai batean kokatuak. Geroago, mozorratzeak badu aipatutakoarekin zerikusirik, eta baita ere Grezitarren antzezpen kritiko eta parregileekin.

Hegazti harrapalarien uxatzaile bezela asmatu zituzten "txorimalau" deritzon irudiak soro-erdiatan tantai batean kokatuak. Mozorratzeak badu aipatutakoarekin zerikusirik.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

Janari

Salbador 26. Tel: 768190

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzak
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK



Pelotako finala irabazi zebenekua

Elgeta ezaguna da pelota munduan, lau t'erdiko txapelketia inportantienetakua eta pelotarixak be ugari izan dittugu. Juaristi eta Lapurdik oso ondo egitten ei zebe pelotan. Partidu asko jokatuak dira.

Argazkixa Donostian ataratakua da, jubenetako finala irabazi eta gerokua. Elgetako jende asko jua zan herriko pelotarixak animatzera. Eta holako animuekin ezin galdu, txapelketia irabazi zebe-eta. Anoetako frontoian izan zan partidua, urtia jakitzeko kenketa bat bakarrik egin bihar da, pelotarixak 18 urte zittuen, hortik norberak etara dittezela dakala kontuak.

Txapela eta kopia emon zotzenian herritik etorritako ezagun danekin batera argazkixa etara zaben. Azpitan dare argazkixan agertzen diranak.

Lau t'erdiko txapelketako partidua jokutzen laster hasiko dira frontoian eta danok animatzen zaituegu hasiera-hasieratik partidua jarraitzera juatia.

Behekuak: **Jesusa Lizarralde, Jose Antonio Retolatza, Maria Victoria Angoitia, Angel Egizabal, Patxi Basauri, Ramon Ugalde, Pello Izagirre, Juan Mari Arantzeta, Jose Inaxio Juaristi, Roberto Basauri, Juan Luis Ubera, Iñaki Berraondo, ezezugana eta Enrike Ormaetxea.**

Goikuak: **Alejandro Arantzeta, Anton Alberdi, Karmen Oianguren, Arrate Elkoro, ezezugana, Luis Mari Retolatza, Mari Koro Retolatza, ezezaguna, Mari Karmen Arantzabal, Maite Elkoro, Juanito Barrutia, Sabino Gallastegi, Jesusa Izagirre, Jabier Elortza, Guadalupe Ibarbia, Jose Mari Atxotegi, Manu Saratsua, Angel Berrixo, Nikolas Basauri, zezilio Totorikaguena, Jorge Iturrigaztelu, Juan Luis Juaristi, Antonio Idigoras, Jose Antonio Egizabal, Mikel Arantzeta, Iñaki Olaortua eta Jose Mari Alberdi.**

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



Ospatu gurekin 5 urteak beste horrenbeste izan daittezen!

MAHAI INGURUA: Zer da Gaztetxea?

dokumentala: emakume arabiarra

hitza: "Emakumea lan munduan"

ARDI BELTZAKO BIDEOA
gero hitzaldia

MENDI IBILALDIA: ELGETA-KANPAZAR-BESAIDE-UDALA

HAURREN EGUNA mendian gosea egin eta gero bazkaria

ROCK KONTZERTUA: SEÑOR NO, FLY SHIT eta OSTIADA OI!

TXUMA MUGARREN
kantaldi akustikoa

GAZTETXEAREN 5.URTEURRENA: poteoa, jokuak, Bazkaria... Gauean Kontzertu mundiala: **CCP** eta **DUSMINGETS**